

Ezpalak

GORKA BEREZIARTUA

Jokin Muñozek jaso du 2007ko Beterriko Liburu saria *Antzararen bidea* nobelarengatik. Liburuaren "intriga puntua", leku eta pertsonaien deskribapena eta sentimendu pertsonalak azaltzeko gaitasuna azpimarratu zituzten Andoaingo Bastero Kultur Gunean egindako sari emanaldian. Lehenengo aldiz irakurzaleek osatutako 111 Akademia arduratu da Beterriko Liburu saria emateaz. Gainera, ekitaldia baino lehen, I. Batzarra egin zuen 111 Akademiak, 2008rako lan egitaraua zehazteko.

Angelica Lidell idazle kataluniarraren *Belgrado* liburu argitaratu du Arzteblai argitaletxe bilbotarrak gaztelaniaz. Yugoslavia ohian girotutako antzezlan da; testuinguru horretan pertsonak izaten dituzten kontraesan eta miseriak azalera izan du helburu Lidellek. Poesia eta narratiba ere idatzi duen arren, antzerki tes-tuengatik da ezaguna Lidell.

Markeliñeren *Terapia Portugalen*

PORTUGALGO Imaginarius jaialdian estreinatu zuen joan den astean Markeliñe antzerki taldeak bere lan berria. *Terapia* izeneko kale antzerkiak bikoteari buruzko gogoeta egiteko gonbita luzatu nahi die ikus-entzuleei. Estreinaldiaren ondoren atsedendia hartuta, uztailean hasiko da Markeliñe antzezlan Euskal Herriko txoko batetik bestera mugitzen. Besteak beste, uztailearen 22an Corellan izango dira, 23an Lizarran, 24an Tafallan, 25ean Peraltan eta 26an Ermuan.

El Cuentagotas kultur ataria abian da

INTERNETEN pornografia eta Chikiliquateren bideoak ikusteaz aspertuta zegoen lagun talde batek kulturaren inguruko webgune bat sortzeko ideia izan zuen duela hilabete. "Diskoak, liburuak, kontzertuak, erakusketak, jaialdiak, filmak eta interesgarria izan daitekeen edozer gauza" izango dituzte hizpide euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako El Cuentagotas atarian. Joan den astean, maiatzaren 12an jarri zuten abian egitasmoa, www.elcuentagotas.net helbidean. Edizio irekia izango du, erabiltzaileei idazteko aukera eskainiko diete. Horretarako bisitariak bere erabiltzaile kontua sortzea baino ez du egin behar. Erritmo onean hasi dira gainera, astebetean 50 artikulutik gora argitaratu dituzte.



Uda 08
Gabriel Aresti euskaltegia*

Eskaintza zabala

- * Bametegiak Bilbo eta Bakailan
- * Ikastaro trinkoak 3 eta 5 ordukoak
- * Autoikaskuntza
- * Tailerrak
- * Gaste zein heldu
- * Goizez eta arratsaldez
- * Hotails, abuztua eta iraila

25 urte!
www.gabrielaresti.com Elkartan
 Done Bikendi 2 - 4. solairua 48001 - Bilbo - tel: 94 423 75 91

El Diario Vascon argitaratutako Alvaro Bermejoren *Erdera ere emengoa* (sic) da artikulua [pasarte da ondokoa](#): «Renoko (AEB) Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroan, komunitate baten nortasuna eraikitzean idazleek zein paper jokatzeko duten aztertuko duen kongresua inauguratu zen atzo. Gonbidatutako autoreen artean —ohi bezala— ez dago gaztelaniaz idazten duen euskal idazlerik. Zoritxarrez, hori ez da albiste. Frankfurtoko azokan gauza bera gertatu zen, eta baita euskal instituzioek sustatutako kultur enbaxada guztietan ere. Kontua ez da gaztelaniaz idazten dugun euskal idazleoi turismoa egin eta gure obra Administrazioaren kontura ezagutarazteko aukera ukatzen zaigula —zorionez, batzuek ez dugu behar—, baizik eta herritarrek gehien erabiltzen duten hizkuntza —gure nortasun sentimendua edozein izanik ere— ikusezin bilakatzen duten modua».